

# PLAZA ECOFRIENDLY

## *0. - Zertan datza?*

Guk planteatutako proiektu honetan, herrian zehar dauden txoko abandonatuak berreskuratu (*adibidez eskuineko irudian ikus daitekeen txoko hau*) edo balioan jartzeko proposamen eta proiektua helaraziko diogu udalari, eta, bertan zenbait postu ekologikoak ezarri, inguruko baserritarren produktuak saltzeko langile batzuk kontratatuko ditugu. eta hauek denda fisikoetan nahiz etxez etxeko zerbitzuan jardungo dute. Kasu honetan, plazako txokoak obretako kontainerrekin eginda egongo lirateke, eta plazaren ezaugarri nagusia ingurumena errespetatzen duela da.

